

Gizarte Ekimeneko ikastetxeetako aste honetako bigarren greba egunak ere jarraipen zabala izan du

Patronal nagusiak elkarrizketaren alde egiten duela dioten arren, ez da sindikatuokin harremanetan jarri ere egin azken zortzi hilabetetan

Gaurkoa, Gizarte Ekimeneko ikastetxeetako langileriak Lan hitzarmena berritzeko helburuarekin egiten duen hirugarren greba eguna da. Lehenengoa pasa den apirilaren 25ean egin zuten. Eta bigarrenkoa atzo, urriaren 17an. Gaurko grebak ere oso jarraipen zabala izan du, atzokoaren oso antzekoa. Langileriaren ia %70 ingururen babesak izan du beraz. Milaka izan dira Gasteizen egin den manifestaziora gerturatu diren langileak.

Bihar ere greba egingo dute eta abenduaren 11-15 bitarte beste bost eguneko greba deialdia dago erregistratua.

Sektore honetan nagusi den Kristau Eskola patronalak elkarrizketaren eta negoziazioaren alde egiten duela adierazi du atzo argitaratuta prensa ohar baten bidez.

Azken negoziazioa mahaia orain dela zortzi hilabete baino gehiago izan genuen ordea, eta apirilak 25ean lehen greba eguna egin genuenetik urriko grebetara bost hilabete baino gehiago pasa dira. Eta denbora guzti honetan mahaian ordezkariak duten Kristau Eskola eta AICE-IZEI patronalak ez dira sindikatuokin harremanetan jarri ere egin.

Ikasturtea hastearrekin bat ELA, STEILAS, CCOO, LAB eta UGT sindikatuek, Kristau Eskola eta AICE-IZEA patronalei negoziaketa eskaera berri bat ere helarazi diete; eta Eusko Jaurlaritzari ere bilera eskaera bat luzatu, negoziaketaren blokeo egoeraren berri emateko. Ez dute ez bata ez bestearen erantzunik jaso gaur gaurkoz.

Sindikatuon helburua 2021etik iraungita dagoen hitzarmena lehenbailehen berritzea da. Ez genuke aurreko hitzarmena lortzeko beharrezkoak izan ziren 29 greba egun luze barnebidu zituen dinamika errepikatu nahi.

Aurreko hitzarmenaren aldeko prozesuan argi geratu zen edukiak daudenean adostasunak lortzen direla. Sindikatu nagusi eta patronal nagusi berdinen artean posible izan zen orduan.

Hau horrela, sindikatuok Kristau Eskola eta AICE-IZEA patronalei negoziazio erreala ahalbidetuko duten edukiak mahai gainean jartzeko eskatzen diegu. Hitzarmena berritzea posible egingo duten proposamenak landu eta mahai gaineratzeko ere bai.

9.000 langile inguru dira grebara deituak. 200 ikastetxe baino gehiagotan 130.000 ikasle ingururi ematen diote hezkuntza. Aldarrikapen nagusiak lan zamak arintzeko neurrietan, sektore feminizatu eta prekarizatuarentzat hobekuntzetan, KPIa bermatuko duten soldata igoeretan, lanpostuak mantentzeko neurrietan eta Lanbide Heziketako edukietan oinarritzen dira. Euskara planak, berdintasun planak eta lan osasuna eta bereziki arrisku psikosozialak aboratzeko planak ere jomugan dituzte.

Euskal Herrian 2023ko urriaren 18an



La segunda jornada de huelga de ésta semana en los centros de enseñanza de iniciativa social también ha tenido un amplio seguimiento

Mientras la patronal mayoritaria dice abogar por el dialogo, ni siquiera se ha puesto en contacto con los sindicatos en los últimos ocho meses

La de hoy es la tercera jornada de huelga que realiza la plantilla con el objetivo de renovar su convenio. La primera fue el pasado 25 de abril. Y la segunda ayer, 17 de octubre. La huelga de hoy también ha tenido un seguimiento muy amplio, muy similar al de ayer. Ha contado con el apoyo de casi el 70% de la plantilla. Miles de trabajadores y trabajadoras han participado en la manifestación celebrada en Vitoria-Gasteiz.

Mañana también habrá huelga y entre el 11 y el 15 de diciembre está registrada la convocatoria de otros cinco días más.

La patronal Kristau Eskola, mayoritaria en este sector, ha expresado su apuesta por el diálogo y la negociación a través de un comunicado de prensa publicado ayer.

Sin embargo, la última mesa de negociación fue hace más de ocho meses, y de la primera jornada de huelga del 25 de abril a las de octubre han pasado más de cinco. Durante todo este tiempo las patronales Kristau Eskola y AICE-IZEI, con representación en la mesa, ni siquiera se han puesto en contacto con los sindicatos.

Con el inicio del curso escolar, los sindicatos instaron a estas patronales a iniciar una negociación real y dirigieron al Gobierno Vasco una petición de reunión para informar sobre la situación de bloqueo en la negociación. No han recibido respuesta a día de hoy.

El objetivo es renovar cuanto antes el convenio, cuya vigencia expiró en diciembre de 2021. No quieren tener que volver a repetir una dinámica similar a la que fue necesaria para la firma del anterior convenio y que incluyó 29 largas jornadas de huelga.

En el proceso para la consecución del anterior convenio quedó claro que cuando hay contenidos hay acuerdos. El acuerdo fue posible entonces entre los mismos sindicatos mayoritarios y las mismas patronales mayoritarias.

Así, los sindicatos pedimos a las patronales Kristau Eskola y AICE-IZEA que pongan encima de la mesa contenidos que permitan una negociación efectiva. Y que trabajen y presenten propuestas que hagan posible la renovación del convenio.

Son 9.000 los trabajadores y trabajadoras de los centros de enseñanza de Iniciativa Social las llamadas a la huelga. Imparten educación en más de 200 centros educativos a unos 130.000 alumnos y alumnas. Las principales reivindicaciones se centran en medidas para aliviar las cargas de trabajo, mejoras para los sectores más feminizados y precarizados, subidas salariales que garanticen el IPC, medidas para mantener los puestos de trabajo y contenidos de Formación Profesional. Los planes de euskera, los planes de igualdad y los planes para abordar la salud laboral y especialmente los riesgos psicosociales también están en el punto de mira de los sindicatos.

Euskal Herria a 18 de octubre de 2023

